

DIRU ITURRIAK

Gure proiektuaren diru-sarrera nagusiak tartak, pastelak, galletak eta bestelako gozoen salmentatik datoz. Diru-sarreraren zati handiena, gutxi gorabehera %60, eguneroko produktuen salmentatik lortzen da; beste %30 ospakizunetarako eskaera berezi eta pertsonalizatuek sortzen dute, eta gainerako %10a pertsonalizazioagatik aplikatzen diren prezio gehigarriek osatzen dute.

Proiektuak hasieran inbertsio handia behar duenez (sukaldeko instalazioak, labeak eta tresneria), hasierako inbertsio hori estaltzeko diru-sarrerak batez ere eskaera pertsonalizatuetatik eta salmenta jarraituetatik etorriko dira, pixkanaka negozioaren jasangarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko.